# I ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**3.043**

**33/2002 FORU DEKRETUA, maiatzaren 14ko Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez, arautu egiten da Arabako Lurralde Historikoan dauden nekazaritza ustiategietako aziendetan animalien osasun zerbitzuak nola eman.**

Nekazaritza eta Ingurumen Sailaren eskumenekoa den animalien osasun sektorearen barneko lan gehienak usadiozko eran egin izan dituzte orain arte albaitariek, bai beren kontura bai Administrazioarekin kontratuak dituzten erakundeetako langile gisa.

Hein handi edo txikiagoan, estatuko zein atzerriko administrazioetan gertatzen den egoera honek abeltzaintza arloaren beraren egituran du jatorria. Hortaz, animalia-produktuen merkatua gelditzea edo zigortzea ekidin ahal izan dadin eta osasun-eskakizun jakin batzuk betetzen direla berma dadin, beharrezko dugu sistema eragingarri eta azkar-azkarrak izatea abeltzaintza ustiategietara ia edozein ordutan eta egoeratan azkar joan ahal izateko.

Hori dela eta, Nekazaritza eta Ingurumen Saileko eskumenekoa den gai honetan ezinbestekoa izaten da askotan sektore pribatuko albaitari profesionalen esku-hartzea lanbidea maiz ustiategietan eginez, osasun-datuak fidagarriak direla eta lan ofizialak burutzen direla bermatu ahal izateko, administrazioak lan horien gainbegiratze lanak etengabe egingo dituela. Izan ere, lan horien bidez sektore horri arreta hoberena eskaintzea ahalbidetuko da, legezko eskakizunak betetzen direla ziurtatu, eta abereen gaixotasunak hedatzea ekidin.

Albaitari Gaituaren figurak printzipio horiei erantzuten die, izaera ofiziala aitortzen baitzaio bere jarduketari zein luza ditzakeen agiriei, baldin eta bere kontrolpeko ustiategiko abereekin badihardu.

Ildo horretatik eta Euskal Autonomi Erkidegoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiltegietara eramango diren behi, ardi eta ahuntzen espezieko animalien deklarazio-ereduei eta osasun baimenei onespena eman zien Osasun Saileko eta Nekazaritza eta Arrantza Saileko sailburuen 2002eko urtarrilaren 16ko Aginduak, eta bertan aurrez ikusia dago osasun baimenak aziendako albaitari ofizialek zein albaitari gaituek luzatuak izateko aukera.

Erakunde komunek animalien osasun arloan emandako arauak garatu eta betearaztea Arabako Lurralde Historikoari dagokio. Beraz, egokia da oinarriak finkatzea Nekazaritza eta Ingurumen Sailak zerbitzu-emate horiek kontratatu ahal izateko eta, era berean, “Albaitari Gaituaren” kalifikazioa eman ahal izateko Administrazioak kontratatu dituen albaitariei, bai zuzenean kontrataturikoei bai animalien osasun zerbitzuak emateko administrazioarekin lankidetza hitzarmenak edo kontratuak sinatu dituzten Elkarte edo Erakundeen bidez burutu dituztenei.

Hori dela-eta, gaurko bilkuran Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren eta Nekazaritza eta Ingurumen Saieko foru diputatuak hala proposatuta.

ERABAKI DUT:

1. artikulua.- Animalien osasun zerbitzuak nola eman, Arabako Lurralde Historikoan kokatuta dauden nekazaritza ustiategietarako aziendei dagokienez.

Arabako Lurralde Historikoko ustiategietako aziendei dagokienez, animalien osasun zerbitzu-ematea Foru Aldundiaren eskumenekoa denean, pertsona fisikoekin zein juridikoekin kontratua eginez gauzatu ahal izango da, baldin eta horien xedeek edo jarduerek kontraturen gaiarekin zuzeneko harremana badute.

2.- Aipatze moduan, zerbitzu horiek ematean eginkizun hauek ere har daitezke barne:

1. Animaliei epidemiologia zaintza egitea, laginak hartzea eta gaixotasun kutsagarrien eta parasitarioen kontrola egitea.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**3.043**

**DECRETO FORAL 33/2002, del Consejo de Diputados de 14 de mayo, que regula la prestación de los servicios de sanidad animal de la cabaña ganadera de las explotaciones agrarias radicadas en el Territorio Histórico de Álava.**

Una gran parte de los trabajos de sanidad animal cuya competencia corresponde al Departamento de Agricultura y Medio Ambiente se vienen ejecutando de forma tradicional por profesionales veterinarios, bien a título personal o como empleados de entidades que tienen contrato con la Administración.

Este hecho, que en mayor o menor grado se da en muchas Administraciones, tanto nacionales como extranjeras, se deriva de la propias estructura del sector ganadero. Es necesario contar con sistemas eficaces y muy ágiles que permitan desplazarse con rapidez a las explotaciones ganaderas, casi a cualquier hora y en cualquier circunstancia, para evitar la paralización o la penalización del mercado de los productos animales pero, también, para garantizar el cumplimiento de ciertos requisitos sanitarios.

Por ello es imprescindible en muchos casos contar con la intervención de profesionales veterinarios del sector privado que ejerciendo su profesión habitualmente en las explotaciones ganaderas garanticen la fiabilidad de los datos sanitarios, la ejecución de trabajos oficiales y extiendan algunos documentos que, bajo la supervisión permanente de la Administración, permitan ofrecer un sistema de atención óptima al sector, aseguren el cumplimiento de los requisitos legales y eviten la difusión de enfermedades animales.

A estos principios responde la figura del Veterinario Habilitado al que se reconoce el carácter oficial tanto de su actuación como de los documentos que puede expedir, siempre que se refiera a animales de las explotaciones ganaderas que estén bajo su control.

En esta línea y en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Orden de 16 de enero de 2001, de los Consejeros de Sanidad y de Agricultura y Pesca, aprobó los modelos de declaración y de autorización sanitaria sobre animales de la especie bovina, ovina y caprina destinados a mataderos en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, habiéndose previsto que la autorización sanitaria pueda ser expedida por Veterinarios Oficiales o por Veterinarios Habilitados de la explotación Ganadera.

Correspondiendo al Territorio Histórico de Alava el desarrollo y ejecución de las normas emanadas de las instituciones comunes en materia de sanidad animal, procede establecer las bases para que por el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente pueda contratarse la prestación de estos servicios y, al mismo tiempo, pueda otorgarse la calificación de “Veterinario Habilitado” a aquellos veterinarios cuyos servicios hayan sido contratados por la Administración, bien directamente o a través de las Asociaciones o Entidades que tengan suscritos convenios de colaboración o contratos de prestación de servicios de sanidad animal con la Diputación Foral de Alava.

Por lo expuesto, a propuesta del Diputado Foral del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy.

DISPONGO:

Artículo 1 - Prestación de servicios de sanidad animal respecto a la cabaña ganadera de las explotaciones agrarias radicadas en el Territorio Histórico de Álava.

1.- La prestación de los servicios de sanidad animal cuya competencia esté atribuida a la Diputación Foral respecto a la cabaña ganadera de las explotaciones agrarias radicadas en el Territorio Histórico de Álava podrá realizarse contratándola con personas físicas o jurídicas cuya finalidad o actividad tenga relación directa con el objeto del contrato.

2.- A título enunciativo, la prestación de estos servicios podrá incluir la ejecución de la siguientes funciones:

1. Vigilancia epidemiológica, toma de muestras y control de enfermedades infecciosas y parasitarias de los animales.

2. Egiaztagiri ofizialak, animaliak lekuz aldatzeko baimenak eta Nekazaritza eta Ingurumen Sailari luzatzea egokitzen zaizkion gainerako agiriak emateko behar diren datu eta eskakizunak egiaztatzea.

3. Animalien azterketa egitea, eta behi, ardi, ahuntz, txerri, zaldi edo beste edozein espezietako animaliak banaka identifikatzeko datuak egiaztatzea, baldin eta horien osasun eskumena Arabako Foru Aldundiak badu.

4. Arabako Foru Aldundiak egin behar dituen edo sustatzen dituen animalien osasunaren kanpainak gauzatzea.

5. Arabako Foru Aldundiak egin behar dituen edo sustazen dituen osasun probak gauzatzea.

6. Behi, ardi, ahuntz, txerri edo zaldi espeziei txertoak jartzea, Arabako Foru Aldundiak egin edo sustatzen dituenean.

7. Alabaitaritza arloko laguntza ofiziala ematea animali bilkuretan, ferietan, enkanteetan, animaliak erabiltzen dituzten kirol eta zezen ikuskizunetan.

8. Laguntza teknikoa ematea abere aziendari sortutako kalteen ondare-erantzukizunaren arloan.

9. Albaitaritzako Alerta Sarean laguntza teknikoa, kontrola eta ikuskaritza egitea.

10. Bertan egonik, abereak garraiatzeko baliabideei buruzko laguntza teknikoa, kontrola eta ikuskaritza egitea.

11. Animalien Ongizate arloan, laguntza teknikoa ematea eta kontrol eta ikuskaritza lanak in situ egitea.

12. Abere ustiategietara nahitaez eraman beharreko edozein erregistro-libururen edo nahitaez eduki beharreko agirien kontrola egitea.

Artículo 2.- Albaitari gaitutzat hartzea.

1.- Nekazaritza eta Ingurumen Sailak albaitari gaituaren izaera aitortuko die albaitariei, zuzenean zein lan harremanak dituen enpresaren bidez aurreko artikuluan zehaztutako eginkizunen bat gauzatzen badute Arabako Lurralde Historikoan kokatutako nekazaritza ustiategietako abere aziendekin; Aldundiarekin egindako zerbitzukontratuari jarraituz gauzatuak izan behar dira eginkizun horiek eta aipatutako eginkizunak burutzea xedetzat hartu kontratu horretan.

2.- Animalien osasun arloan albaitaritza zerbitzuak emateko, Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena edo kontratuta sinatu duten Elkarte edo Erakundeek behartuta egongo dira Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari erakunde edo elkarte horietako albaitarien alten eta bajen berri ematera, Foru Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako.

3.- Interesdunak eskaturik eta Abeltzaintzako zerbitzuburuak proposatuta, Nekazaritza Zuzendariaren ebazpen bidez emango da Albaitari Gaituaren egiaztagiria, Foru Agindu honetako eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duen espedientea egin ondoren.

3. artikulua.- Albaitari gaitutzat hartzeko eskakizunak.

1.- Honako eskakizunak bete beharko dira albaitari gaituaren ezagutza egiteko:

a) Espainiako estatuan albaitari lanbidean jarduteko gaitzen duen titulu akademikoa izatea, eta ezgaitasun edo baliogabetasun auzietan ez egotea gaitzearen gaia den eginkizunetan jarduteko.

b) Animalien osasun-zerbitzua emateko Arabako Foru Aldundiak hitzarmena edo kontratua sinatua izatea bai albaitariarekin berarekin edo albaitaria lanean dagoen erakundearekin.

2.- Albaitari gaitutzat hartzeak ez dakar inolako eskubiderik edo lan harremanik eskuratzea Arabako Foru Aldundiarekin.

4. artikulua.- Albaitari gaituaren ahalmenak:

1.- Hona albaitari gaitutzat hartzeak ematen duen ahalmena:

a) Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuak egin beharreko agiri batzuk luzatzea: egiaztagiriak, animaliak lekuz aldatzeko baimen agiriak, jatorri-gidak eta animalien osasun-gidak; horiek denak izaera ofiziala izango dute.

b) Parteak betetzea eta agirien bidez ofizialki egiaztatzea identifikatu beharreko espezietako animalien identifikazioa.

2. Comprobación de datos y requisitos necesarios para la expedición de certificaciones oficiales, de autorizaciones de traslado de animales, de guías de origen y sanidad animal, y demás documentos que corresponda expedir al Departamento de Agricultura y Medio Ambiente.

3. Reconocimiento de animales y comprobación de datos para la identificación individual de los pertenecientes a las especies bovina, ovina, caprina, porcina equina o de cualquier otra especie cuya competencia sanitaria corresponda a la Diputación Foral de Álava.

4. Ejecución de campañas de sanidad animal que deba realizar o promueva la Diputación Foral de Álava.

5. Ejecución de pruebas sanitarias que deba realizar o promueva la Diputación Foral de Álava.

6. Vacunaciones de las especies bovina, ovina, caprina, porcina y equina, que deba realizar o promueva la Diputación Foral de Álava.

7. Asistencia oficial veterinaria en concentraciones animales, ferias, subastas, espectáculos deportivos con animales y espectáculos taurinos.

8. Asistencia técnica en materia de responsabilidad patrimonial por daños a la cabaña ganadera.

9. Asistencia técnica, control e inspección de las Redes de Alerta Veterinaria.

10. Asistencia técnica, control e inspección in situ de los medios de transporte de ganado.

11. Asistencia técnica, control e inspección in situ en materia de Bienestar animal.

12. Control en explotaciones ganaderas de los libros-registro de cualquier tipo que sean de llevanza obligatoria o de la documentación de tenencia preceptiva.

Artículo 2.- Reconocimiento de la condición de veterinario habilitado.

1.- El Departamento de Agricultura y Medio Ambiente podrá reconocer la condición de veterinario habilitado a aquellos veterinarios que, bien personalmente o a través de la empresa con quien estén vinculados laboralmente, ejerzan alguna de las funciones definidas e en el artículo anterior respecto a la cabaña ganadera de las explotaciones agrarias radicadas en el Territorio Histórico de Álava con sujeción a un contrato de servicios formalizado con esta Diputación donde se contemple como objeto la realización de dichas funciones.

2.- Las Asociaciones o Entidades que tengan suscrito un convenio o contrato con la Diputación Foral de Álava para la prestación de servicios veterinarios en materia de sanidad animal estarán obligadas a comunicar al Servicio de Ganadería de la Diputación Foral las altas y bajas de los veterinarios pertenecientes a las mismas, a efectos de lo dispuesto en este Decreto Foral.

3.- La acreditación de la cualidad de Veterinario Habilitado será otorgada, a solicitud del interesado, por resolución del Director de Agricultura, a propuesta del Jefe del Servicio de Ganadería, previo expediente en el que se compruebe el cumplimiento de los requisitos establecidos en esta Orden Foral.

Artículo 3.- Requisitos para su reconocimiento.

1.- Para poder obtener el reconocimiento de veterinario habilitado se deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Estar en posesión del titulo académico que habilite para el ejercicio de la profesión de veterinario/a en el territorio español y no hallarse incurso en causa de inhabilitación y/ó suspensión para el ejercicio de las funciones objeto de habilitación.

b) Tener la Diputación Foral de Álava suscrito y vigente un convenio o contrato para la prestación de servicios de sanidad animal bien con el propio veterinario o con la entidad para la que trabaje.

2.- El reconocimiento de la condición de veterinario habilitado no supondrá la adquisición de ningún derecho ó vínculo laboral, o de cualquier tipo con la Diputación Foral de Álava.

Artículo 4.- Facultades del veterinario habilitado

1.- El reconocimiento de la condición de veterinario habilitado facultará para:

a) Expedir aquellas certificaciones, documentos de autorización de traslado de animales, guías de origen y de sanidad animal que corresponda emitir al Servicio de Ganadería de la Diputación Foral, los cuales tendrán carácter oficial.

b) Cumplimentar los partes y acreditar documentalmente con carácter oficial la identificación de animales de las especies a identificar.

c)Abereen garraiobidearen, animalien ongizatearen eta erregistro-liburuen inguruan eskatzen diren agiriei balioa ematea, dagokion oniritziaren bidez, eta horiek guztiak luzatzea.

d) Animalien osasunari buruz aurreko ataletan aipatu gabeko agiriak luzatu eta horiei oniritzia ematea, baldin eta eginkizun horiek Aldundiak kontrataturiko zerbitzu ematearen gai badira.

5. artikulua.- Albaitari gaituaren zereginetan aritzeko baldintzak:

1.- Albaitari gaituak bere kontrolpeko animaliekin eta osasun-zuzendaritzako abere ustiategietakoekin gauza ditzake bakarrik bere zereginak. Albaitari gaituaren izaera hori zuzenean galduko da, xedapenezko hirugarren zatian izaera hori aitortzeko ezarritako edozein baldintzetako bat betetzeari uzten zaionean.

2.- Albaitari gaitu lanetan jardutean Nekazaritza eta Ingurumen sailak gaitutako eginkizunak gauzateko ematen dituen jarraibideei segitu beharko zaie.

3.- Ustiategiei dagokienez, albaitari gaituak ez ditu burutuko gaitzeak barne hartzen dituen zereginak, ustiategi horien titularrak edo parte-hartzaileak arrazoi hauetakoren batean baldin badaude:

a.- Bere kontrolpeko abere ustiategiaren titularrarekin edo erakunde titularraren bazkide parte-hartzailearekin laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea

b.- bere kontropeko eta osasun-zuzendaritzako abere ustiategien titularrekin edo aurreko lerroaldian aipatutako lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

c.- Abere ustiategiaren titularrarekin lan harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan izaera pribatuarekin peritaje zerbitzuak eman izatea.

4.- Albaitari gaituak dekretu honetan edo beste arautegi aplikagarri batean zehaztutako eskakizun edo baldintzetakoren bat bete ezean, Nekazaritza Saieko zuzendariak ebazpena eman ahal izango du albaitari gaituaren izaera baliogabetzeko.

6. artikulua.- Albaitari gaituen betebeharrak.

Hona albaitari gaituek bete beharreko arauak:

1. Ondo jakitea egiaztatu beharreko animaliei edo produktuei aplikagarria zaien albaitaritza-araudia eta egiaztapena egin baino lehen egin beharreko prozedura, proba edo azterketak.

2. Ez egiaztatzea bere ezagupenetatik kanpo geratzen den edo benetan jakin ezin den ezer.

3. Ez sinatzea animaliei edo ikuskatu gabeko produktuei buruzko egiaztagiriak, bete gabe edo osorik bete gabe badaude.

4. Inpartzialtasunez jokatzea eta zuzeneko finantza-interesik ez izatea egiaztatu beharreko animalia edo produktuetan edo jatorria edo xede duten establezimenduetan edo ustiategietan.

5. Luzatutako egiaztagiri guztien kopiak artxibatzea eta, hala dagokionean, agiri horiek luzatzeko oinarritzat hartu zirenak ere bai. Agiri horiek guztiak hiru urtetan zehar gordeko dira gutxienez.

7. artikulua.- Albaitari gaituaren erantzukizuna.

1. Foru Aldundiak behar diren kontrol-neurriak hartuko ditu honakoak ekiditeko: egiaztagiri faltsuak edo hutsak eragin dezaketenak luzatzea; iruzurrezko produkzioa; ustez albaitaritza arautegiaren arabera luzatutako egiaztagiriak erabiltzea.

2. Egiaztagiri faltsuak edo zehazgabeak luzatuz gero, zigorbidezko ekintzaz eta zehapenez gain Arabako Foru Aldundiak kontuan hartzen diren behin-behineko neurriak hartuko ditu, bai eta araudi hori bortxatzen duten jokabideak zigortu ere.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Nekazaritza eta Ingurumen Saileko foru diputatua gaitzen da Dekretu honek xedatutakoa aplikatzeko beharrezko diren arau osagarriak emateko bere eskumenen arloan.

c) Dar validez mediante el correspondiente visado o emitir, en su caso, los documentos que se exijan en relación con los medios de transporte de ganado, bienestar animal y libros de registro

d) Expedir o visar cualquier otro documento en materia de sanidad animal no señaladas en los apartados precedentes, cuyas funciones hayan sido objeto de la prestación de servicios contratada por Diputación.

Artículo 5.- Condiciones del ejercicio de la condición de veterinario habilitado.

1.- La condición de veterinario habilitado solo podrá ejercerse respecto a los animales de las explotaciones ganaderas que estén directamente bajo su control y dirección sanitaria y se perderá automáticamente cuando deje de cumplirse cualquiera de las condiciones establecidas para el reconocimiento de la citada cualidad en el disponendo tercero.

2.- En el ejercicio de la condición de veterinario habilitado deberán seguirse las instrucciones que se dicten por el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente para el ejercicio de las funciones habilitadas.

3.- El veterinario habilitado deberá abstenerse de ejercer las funciones objeto de habilitación respecto de explotaciones con cuyos titulares ó participes concurra algunos de los siguientes motivos:

a.- Tener parentesco de consanguinidad dentro del cuarto grado o de afinidad dentro del segundo respecto del titular o socio participe de la entidad titular de la explotación ganadera que esté bajo su control.

b.- Tener amistad o enemistad manifiesta con titulares ó partícipes de las explotaciones ganaderas que estén directamente bajo su control y dirección sanitaria ó con alguna de las personas mencionadas en el apartado anterior.

c.- Tener relación laboral con el titular de la explotación ganadera o haberle prestado en los dos últimos años servicios de peritaje de carácter privado, en cualquier circunstancia o lugar.

4.- En el supuesto de incumplimiento por parte del veterinario habilitado de alguno de los requisitos y condiciones de ejercicio especificadas en el presente Decreto u otra normativa aplicable, el Director de Agricultura podrá dictar resolución revocatoria del reconocimiento de la condición de veterinario habilitado.

Artículo 6.- Obligaciones de los veterinarios habilitados.

Los veterinarios habilitados deberán cumplir las siguientes normas:

1. Tener un conocimiento satisfactorio de la normativa veterinaria aplicable a los animales o productos que deban certificar, así como de los procedimientos, pruebas o exámenes que deban efectuarse antes de la certificación.

2. No certificar nada que quede fuera del alcance de sus conocimientos personales o que no puedan comprobar a ciencia cierta.

3. Abstenerse de firmar certificados no cumplimentados o incompletos o referidos a animales o productos que no hayan inspeccionado.

4. Actuar con imparcialidad y carecer de intereses financieros directos en los animales o productos que deban certificar o en las explotaciones o los establecimientos de donde procedan o adonde se dirijan.

5. Archivar las copias de todos los certificados expedidos y, en su caso, de los que sirvieron de base para expedirlos, conservándolos, como mínimo, durante tres años.

Artículo 7.- Responsabilidad del veterinario habilitado.

1. La Diputación Foral podrá adoptar las medidas de control necesarias para impedir la expedición de certificados falsos o de certificados que puedan inducir a error, así como la producción fraudulenta o la utilización de certificados supuestamente expedidos a efectos de la normativa veterinaria.

2. Sin perjuicio de posibles acciones y sanciones penales, en caso de expedición de certificación falsa o inexacta, la Diputación Foral de Álava podrá, conforme al derecho sancionador aplicable, adoptar las medidas provisionales que se contemplen, así como sancionar las conductas que violen dicha normativa.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se faculta al Diputado Foral del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente para dictar, en el ámbito de sus atribuciones, las normas complementarias que sean precisas para la aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Indargabeturik geratzen da apirilaren 24ko 56/2001 Foru Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

Honako Dekretua indarrean jarriko da Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko maiatzaren 24a.– Diputado Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Nekazaritza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, GABRIEL CHINCHETRU FERNÁNDEZ DE ALEGRÍA.

*Foru Arauak*

## HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

**3.131**

**406/2002 FORU AGINDUA, maiatzaren 15ekoa, Oyón-Oiongo Udalak ILU-2 sektorearen Plan Partziala bertan behera utzi eta behin betiko onartzearen aurka aurkeztu duen berraztertzeko errekurtsoa balioesteari buruzkoa.**

AURRERKARIAK

Bakarra.- Oyón-Oiongo Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2002ko apirilaren 3an sartu zen idazkiaren bitartez, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu zuen, Herrilan eta Hirigintza Saileko diputatuak martxoaren 8an eman zuen 180/2002 Foru Aginduaren aurka. Agindu horretan Oyón-Oiongo Arau Subsidiarioetako ILU-2 sektorearen Plan Partzialaren espedientea behin betiko onartzea bertan behera uztea erabakitzen zen.

KONTUAN HARTZEKOAK

Lehena.- Bi dira berraztertzeko errekurtso hau oinarritzat dituen arrazoiak.

Alde batetik, aurkatutako Foru Aginduaren lehenengo xedapenaren b) eta c) ataletan jasotako akatsak ez dira funtsezkoak.

Bestetik, 1998-2009 urtealdiko Arabako Errepideen Plan Osoak, Oyón-Oionen saihesbide bat egin beharra besterik ez du ezartzen, baina ez dago, oraindik, taiuketarako inolako proiekturik. Hori dela eta, lehenengo xedapenaren a) atala lege segurtasuneko printzipioa hausten du, Arabako Foru Aldundiak berak onartu dituen Arau Subsidiarioetan jasotako hirigintzako xedapen bat gauzatzea eragozten duelako.

Bigarrena.- Errekurtsoaren bigarren arrazoitik hasita, adierazi behar da, hain zuzen, ILU-2 sektorea Oyón-Oiongo udalerriko Planeamenduaren Arau Subsidiarioek, Toki Erakundeekin Harremanetarako eta Hirigintza Saileko Diputatuak 1996ko martxoaren 26ko 43 zenbakiko Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartutakoak, jasotzen dituen xedapenetako bat da.

Bestalde, Arabako Lurralde Historikoaren Errepideei buruzko 18. artikuluak hirigintzako udal planeamenduak bere aurrikuspenak Arabako Errepideen Plan Osoak ezarritakora ezinbestez egokitu dela ezartzen badu ere, egokitzapen hori Arau Subsidiarioetako agiri teknikoetan irudika daitekeen taiuketa proiektua badago bakarrik egin ahal izango da.

Horrexegatik, Plan Partzialaren behin betiko onespena bertanbehera uzteko ezin da izan, inolaz ere, eragina izateko proiektu tekniko batean jasotako ezinbesteko garapena behar duen Arau bat ez betetzeagatik.

Azaldutakoa azaduta, errekurtsoa onetsi beharra dago, puntu honi dagokionez. Halere, eta Udalbatzak Oyón-Oiongo hirigunetik zehar dabilen trafikoari erantzuna emateko 2002ko martxoaren 15ean eman duen iritzia ikusita, Herrilan eta Hirigintza Sailak Udalari taiuketa proiektu bat bidaltzea egokitzat jotzen du. Proiektu horretan, Udalbatzaren nahia errespetatuz, behar diren hobekuntza teknikoak sartzen ditu, Oyón-Oiongo hirigintzan etorkizunean egingo diren garatze lanei begira balora daitezen.

Hirugarrena.- Azkenik, ezarri diren gainontzeko aldaketak funtsezkoak diren ala ez esatea besterik ez da falta.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto Foral número 56/2001, de 24 de abril.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de mayo de 2002.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, GABRIEL CHINCHETRU FERNÁNDEZ DE ALEGRÍA.

*Ordenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PUBLICAS Y URBANISMO

**3.131**

**ORDEN FORAL 406/2002, de 15 de mayo, en relación con la estimación del recurso de reposición interpuesto por el Ayuntamiento de Oyón-Oion contra la suspensión del Plan Parcial del SAUI-2 y aprobación definitiva de éste.**

ANTECEDENTES

Único.- Mediante escrito, con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 3 de abril de 2002, el Ayuntamiento de Oyón-Oion interpone recurso de reposición contra la Orden Foral número 180/2002, de 8 de marzo, del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, por la que acordaba la suspensión de la aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial del sector SAUI-2 de las Normas Subsidiarias de Oyón-Oion.

CONSIDERACIONES

Primera.- Son dos los motivos en lo que se fundamenta el presente recurso de reposición.

Por un lado, en el carácter no sustancial de las deficiencias contenidas en los apartados b) y c) del dispongo primero de la Orden Foral recurrida.

Por otro, en que el Plan Integral de Carreteras de Álava 1998-2009 establece únicamente la necesidad de una variante para Oyón-Oion, pero sin que exista, hoy por hoy, ningún proyecto de trazado, razón por la que el apartado a) del dispongo primero vulnera el principio de seguridad jurídica, al impedir la materialización de una determinación urbanística contenida en un documento de Normas Subsidiarias que ha sido aprobado definitivamente por la propia Diputación Foral de Álava.

Segunda.- Comenzando por el segundo de los motivos del recurso hay que señalar que, efectivamente, el sector SAUI-2 es una determinación contenida en las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Oyón-Oion, aprobadas definitivamente mediante Orden Foral número 43, de 26 de marzo de 1996, del Diputado de Relaciones con Entidades Locales y Urbanismo.

Por su parte, si bien el artículo 18 de la Norma Foral de Carreteras del Territorio Histórico de Álava establece que el planeamiento urbanístico municipal acomodará necesariamente sus previsiones a lo dispuesto en el Plan Integral de Carreteras de Álava, dicha acomodación solo puede producirse si existe un proyecto de trazado que pueda plasmarse en la documentación técnica de las Normas Subsidiarias.

Es por ello que la suspensión de la aprobación definitiva del Plan Parcial no puede basarse, en ningún caso, en el incumplimiento de una Norma que necesita para su efectividad el desarrollo necesario plasmado, en este caso, en un proyecto técnico.

Lo expuesto conduce necesariamente a la estimación del recurso en lo que a este punto se refiere. No obstante, y dado el pronunciamiento de la Corporación, en sesión de 15 de marzo de 2002, acerca de la solución al tráfico de vehículos por el casco urbano de Oyón-Oion, el Departamento de Obras Públicas y Urbanismo considera oportuno trasladar al Ayuntamiento un proyecto de trazado que respetando la voluntad de la Corporación incluye las mejoras técnicas necesarias, a fin de que sean valoradas de cara al futuro desarrollo urbanístico de Oyón-Oion.

Tercera.- Por último, solo cabe referirse al carácter sustancial o no del resto de las modificaciones impuestas.